

Koloka

TXILARDEGI



DENA dago koloka. Mendebalde honetan, herri-siki zein laxoki, bi gizaurren-liko harremanetan bizi izan da jendea azkeneko mende honetan: Galtilea-ko Jesus eta Treveris-ko Marx.

Hots, bi zutabe nagusi horiek koloka daude, lurrean dagoeneko. Oso ezaguna baita (Levi-Strauss) Australia ondoko Trobriand uharte hartan gertatu omen zena: munduaren ardatzatzat edukitako jainko-ima-jainak porroskatzean, jan eta edan ezinaz hil baitziren denak, poliki-poliki, zutoimik gabeaz.

Krisi nagusi horri, Euskal Herraren erasten zaio, PNVa ez da urrik eman ere, herri honek, bere burua altxako badu, behar duen tresna. EE eta EA, disimulatu ezinezko moduan, deuseztatzeke eran agertzen zaizkigu. Ezker abertzalea, ageri denez, «im-passe» osoan.

Ez dago euskarririk. Alderdi politikoen jokabidea, ulertu ezinezko bihurtu da. Populuaren uestez, azpajokoez ez bestek azal dezakete ilumpe trinko hori. Mesfidantza da nagusi, inoiz izan ez den bezala.

Eta, jakina, mesfidantziari itsatsiak, etsipena eta ezintasuna.

Post-modernoan loraldiak lur sakon hauetan dauka bere sutsuak: jendeak ez du ezertan sinesten. Hamabost urtetan *erraxista* egin da alderdien sinesgarritasuna.

Zer egin? Erantzutea ez da erraza. Super-dogma eta hyper-teoria orokorren porrota osoa izanik, normala da *aherrien pikuntzea*; populuak bere bihotzean sendituz eta bere eskuez ikutz jokatu nahi du. Ekologisten «Small is beautiful» famatuia datorrigu burura.

Eta dogma sinesgarriak ez dagoenez, *idei-askatasuna* behar bide da aurrenik: kontrol ideologikoen heriotza. Nork dauka hemen isil-arazteko ahal? Nondik etorri zaio ahalmen miresgarri hori?

Eta askatasuna diotak, *pluralitasuna* dio. Eta «anarkia», sentidurik sakonenean. Isil bitez prozesua «goitik» (?) bideratu nahi luketenak. Gaur hobe bihar baino.

Alu zinea

JOXERRA GARZIA



DONOSTIAN bizi, eta zinezalea naizen arren ez dut aurtengo Zinemaldiko filmerik ikustera joateko lanik hartuko. Zinema aretoetatik kanpora

bai battago aski alu zinerik.

Hona hemen Errealitateak eskaintzen digun aukera-aukerako karteldegiaeren aukerataxo:

Leizaran Roads. Espioztzeren jeneroan gertatu ohi denez, aise lerra liteke suspentsetik barregarrikeria. Kontraesanez beteriko gidoiari aktoreen sinesgarritasunik eza gaineratzen zaio, endemias, merezi ez bezalako propagandaz horniturik datorren filme hori. Ustela, benetan. Aluzineak-2an ikusgai, gauze.

Urriko Iraultza-2. «Urriko Iraultza» gogoangarri haren segida den honek emango du zeresanik. Aipagarriena, Vladimirren papera zuzendariak berak egiten duela. Aluzineak Iean, etengabeko emanaldia.

Habana Club. Zientzi-fikzioa. Francoren garaiko ministroari ohi batek bisita egiten dio munduko azken agintari komunistari. Aireportuan bertan hasiko zaizkio komerki. Gorabehera askodun filmela bada ere, badu behintzat halako ironia puntu bat, dialogoetan batez ere, Marx anaien estiloa gogora erazten diguna. Kafkaren baimenarekin.

Esango didazue, hau gutxiaz aukeran izaki zertan joango naizen Zinemaldiko filmak ikustera!

EL CORREO ESPAÑOL

Sintesi Gobernua

Zaila da bat ez etortzea Gobernu koalizio berriaren abiatuntuko planteamendu teoriko berriarekin. Nonski, planteamendu hori askoz benetakoagoa da, integratzaileagoa eta eraginkorragoa, porrot egindako aurreko hirukoitz nazionalista baino. Nabaria da horrekin ez dela nahikoa. Denbora eta indarrak galduta egin dira, eta arazoak areagotu. Premiazkoa da Kabinete berri horrek —karterak modu nahiko orekatuan banaturik— dituen nahiak neurri jakinetan adieraztea eta konturatztea, herria lideratu nahi izatearekin batera, kudeaketa, eraginkortasuna eta gauzak egitea garrantzitsua dela, eta gainera, horiek ezin direla gerorako utzi. Historiak ez du atzera egiten, baina aurrekotik ikasi egin behar da berriro akats berak ez egiteko.

EDITORIALA / 1991-IX-27


LAVANGUARDIA

Romanen gainberakada

Gertaera horien esanahia, hala ere, oraindik inkoignita da. Hasi-



PNV



PSE



EE

ZULET / EL DIARIO VASCO / 91-IX-27

ran badirudi meatzarien indarreak agerian jarri duela egungo bostere egituraren ahalutasun handia. Baina, politikoki, meatzarien ekintza bi zentzutan erabil daiteke: Romanen gainberakadak, oposizio «Convencion por la Democracia» aurka duelarik, atek ireki diezaizkioke estatu mailako Gobernu bati, demokratek ere ibindikatzen zuten bezala: horrela izango balitz, meatzariak mesede kasikarra egingo zien, duela urtebete arriskutik aiera zuten lehendakariari. Hala ere, Roman desagertzea kezko gortina baino ez bada lles-arentzat, meatzariak Ceausescu-

ren ondorengoari mesede egingo da, aukera handia galduko da trantsizio politikoa bizkortzeko.

EDITORIALA / 1991-IX-27

EL MUNDO

Uzta: Ardanza 91

Ez duite abiltasun handirik izan guri sinestaztean, karteren banaketa ez den gai bati buruz hitz egiten aritu direla, izan ere, hamar puntu programatik horiek koiznatzeko, nahikoak bait ziren kafearen eskuzapia, atsedeneko bost

minutu eta hori bai, hitzegi lodi lodi bat, hitz luzeekin ideien eskasia ordezkatzeko. Niregatik, noski, ezer idatzi ez balute bezala, ez bait dakit ezer gehiago Gobernu berriari buruz, lehenetasun, helburu eta estrategien zerrenda hori entzun aurretik ez nekienik, horiek uestez Gobernu programa berria kontentsatu egiten dute.

(...)

Antzeko lehenetasun, helburu eta estrategiek, zaila egingo zaio Ardanzari, bere sozio berriak konparatzea egitaraua ez betetzegatik.

MARIO FERRER / 1991-IX-27

ZUZENDARIARI

Itzar zaitetz euskotarra...

EAJko buruzagi «jakintsuek» esaten digute Euskadiko independentzia lortzeko oraindik gure herriak ez dauzkala beharrezko baldintzak: kontzientziazioa, kultura eta ekonomi sendoagoak e.a.

Arazoak ez konpontzea eta behar diren erabakiak atzeratzea onuragarria baino kaltegarria izaten da eta horrelako jarrera defendatzen dutenek herria eginatu beste-rik ez dute egiten.

«Abertzale jakintsu» hauek badakite jakin horrelako aldaketa bat lortzeko nolako esfortzu eta sakrifizio eskatzen dituen eta, noski, errazena hau da: orain ez, aurrerago.

Baina aurrerago eurek ez dira egongo eta esfortzu horiek gero eta handiagoak izan beharko dira, baina «allá cuidaos» egin behar hori har dezala nahi duenak.

Noiz konturatuko ote diren EAJko oinarriko militantek beraien buruzagien mezu faltsuz? Espero dezagun hauek etengabe hartzen dituzten erabaki antiabertz-

leek eragina esna ditzatela Euskalerriko etorkizunaren onerako, hain zuten. EAJko aintzinako abestian dioen bezala: *Itzar zaitetz euskotarra, aupa euskaldun guttiok...*

KELMEN SARASOLA BILBO

Lekukoak

Irailak 22, igandea. Egin egunkariak antolatzen duen festa eguna zela eta, Urdiainerantz abiatu ginen Soraluzeetik autobuzez, ume kopurua dexentea irtean, nagusiak ere ginelarik.

Altsasuko herrira hurbiltzean UAR Goardia Zibilek kontrol batean gera erazi gintuzten. Autobusa alboratu eta segundu batzura goardia zibil bat sartu zen barrura, karnetak eskatu eta izenak apuntatu zituzten karnetik gabe zeudenei.

Nire ondora heldu zenean, apal apal, elkarriketa hau izan genuen:

— ¿Ha pasado algo? (nik).
— No, nada (erantzun zuen).
— Entonces... ¿porqué nos retienen?
— Es sólo un control para

identificar a los pasajeros.
— Pero... ustedes saben que vamos a una concentración legalizada.
— Ya, ya, irán, pero tenemos que hacerlo.
— Pero... ustedes no nos están dejando circular.
— Le digo que irán. Yo sólo cumplo órdenes.
— Ustedes saben que el primer derecho de toda persona es el de poder circular libremente.
— Y nuestro primer derecho es el de identificar a las personas.
— Pero... ¿porqué hoy y aquí?
— Si tiene algo que alegar alegue. Si sigue usted así van a estar más tiempo parados.
Bitartean, ondoan zihozten umeak lehiotik ikusten zutenarekin halako komentarioak egiten: begira, begira, beste autobus bat geldituta... eta beste bat...

Entzundakoarekin auskalo zer pentsatuko ote zuten. Umeen garapenean arrazionaltasunak zein bide hartzen duen jakitea ez da erraza suertatzen Euskal Herrian.

Ondorioak bestalde, eguneroko ikusten ditugunak.

B.T.

SORALUZE

PERSONAIA



Meo Kodro

Realak gizon berri bat duela digute adierazi. Kodro du bere izena eta Jugoslavian zara bizi kezka bat bada gure artean dagoena bizi bizi gola sartzeraz ote datorren edo gertari ihesi.

KOLDO ALBERDI

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:
MARTIN UGALDE
Kontseilu Editorialeko Lehendakaria:
JOAN MARI TORREALDIA
Kontseilari Ordezkarria:
JOXE MIEL ZUMALABE
Gerentea:
INMA GOMILA

Zuzendaria:
PELLO ZUBIRIA
Zuzendariordeak:
NEREA AZURMENDI
LUZIAN ETXEZAHARRETA
INAKI URJA
Publizitate:
KORNELIO ROTETA



Batzorde Parekidea: 72564 E
Lege Gordailua: SS 800/90

HELBIDEAK
Egoitza sozila, Pulizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1, / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57
Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabiloak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93
Arabak: San Antonio, 20-1, ezker, / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73
Nafarroa: Iratze Monastegia, 45-13, esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎: 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77
Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1, eskuma, / 48002 Bilbo / ☎: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60
Lapurd / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2, Galuperia kaia, / 64100 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11